

MARKO - MAËLA - CEN Nouvelle-Aquitaine


# PiNPIriN ETA XiNAURRI BATEN ARTEKO JOKOA...

*Intsektu baten abenturak, Euskal Herrian*



Conservatoire d'espaces naturels de Nouvelle-Aquitaine

# GENTZIANETAKO XINAURRIJALEAREN BIZI ZIKLOA EUSKAL HERRIAN



Gentzianetako xinaurrijalea Frantses estatu eta Europa mailan babestua den desagertzeko arriskuan dagoen pinpirin bat da. Ondorioz, Akitania Berriko eskualdean CEN-NAK kudeatzen duen eguneko pinpirinen babesteko Ekintza Plan Nazional batean agertzen da.

Informazio gehiago: <https://papillons.pnaopie.fr>

ALO MAURRAK I LIBURU HORI ALTXATU ;  
OHERA JOATEKO TENOREA DA

EZ GOAITA I  
KARTAREN MUKETA  
EZ DUGU BUKATUA

BIZIKI HAUNDIA DA  
NUN BIZI GIRA, HEMEN ?

ETA HOR DA  
PIMPINAREN  
ISTORIA GERTATZEN,  
EZTA ?

NOLA DEITZEN  
DA JADANIK ?  
XINU, XINA... XINAU...

XINAURRIJALEA

BAI HORI DA I  
"KENTZIANETAKO"  
XINAURRIJALEA ?

EZ « KENTZIANETAKO »  
BAINA « GENTZIANETAKO », G BATEKIN.

ISTORIA  
KONDA EZAZU  
OTOI !

GENTZIANETAKO XINAURRIJALEARENA ?  
BAINA EZ ZIREZTE LOKARTUKO, GAIKIOAK !  
ISTORIO ASKI BELDURGARRIA DA GURE  
LEHENAGOKO XINAURRI BEITZEN KONTRAKO  
GUDUEN KONDARA BAINAN ANITZETZ  
IZUGARRIAGOA !

EZIN DAKIN  
NOLA BURURATZEN  
PEN...

ALTA GURE  
GERCOA  
ERABAT  
HORRI  
LOTUA DA !

NOR ? GU ?

«MYRMICA»  
XINAURRIAK ?

Bai, PRESESKI,  
GU !  
ETA LANDARE  
BAT !

LINTZUREYAKO  
GENTZIANA EDO  
GENTZANA  
PNEUMONANHE.  
ENTZUN !

UZTAILA ZEN, ERREGINAREN URTEBETETZEA  
OSPAZTERO BESTA HAUNDI BAT ANOLATU GINDEN

ZORIONAK ZURI ERREGINA,  
ZORIONAK ZURI !

ZORIONAK ZURI ERREBE,  
ZORIONAK ZURI !

ZORIONAK ZURI,  
ZORIONAK ZURI !



BESTA PIL-PILEAN ZEN ETA  
BAPATEAN HARRABOTIS HAUNDI  
BAT ENTZUN GINDEN


?

KRAAK!

?

?







LORTUKO AL DU? AMOROSIK GABE

ETA GENTZIANARIK GABE, PIPIRIN SORTU BERRIRIK EZ!



BAI, BIZIA LABURRA DU, ADOS. AHULA DA, ADOS. BAINAN SEKULARO BORROKALARIA DA.



PENTISA, BERE BURUA MYRMICA LARBA BATENTZAT PASARAZTEN DU ETA ONDORIOZ XINAURRITZEKO XINAURRIK ELIKATZEN DUTE!



ALIMALEKO AZERIKERIAK ERABILTZEN DITU GUREKIN EGOTEKO ETA EZIN DUGU DEUS EGIN. GOSE DELARIK, GAI DA ERE ERREGINAREN SORBU PER DERAK EGITEKO!

ZON AZKARRA DEN!



BAI, KUKUAK BEZALA BESTEEN KABIA OKUPATZEKO GAITASUNA DU. HOTS... UTZ NAZAZUE SEGITZEN.

GURE PIPIRINA BETI HEGALDAKA DABIL; BERE HELBURUA FERAKI XERKATUZ: GENTZIANAZ PETERIKO LARRE BAT...



ARE, ORAINDIK 100 METRO GELDTZEN ZAIZKIT.



LEHENIK TRAKTOREA, ONDOTIK...





OBRA HONDAKIN HORIEN ARTETIK PASATU BEHAR NAIZ,



PORTALE HONTAN BUK...




AAAAH!






AKITURIK, BERE  
BILAKETAN  
SEGITZEN DA.




PINPITRIN HONEK  
KASKO GOGORRA DU !



EZ DU DEUSEK GELDI  
ARAZTEN AHAL...  
DEUSEK SALBU...

**BIM!**



GURETZAT PARETA TIPI  
BAT DENA BEREZTAT  
EZIN GANDITUZKO ETXE  
ORRAITZ ERRALDOI BAT  
DA.

!



EZKER AUDEAN  
LANDARETZA  
TRINKOEGIA DA



AUDE HUNTATIK BERDIN,  
EZ NAIZ PASATZEN  
AHAL.

KOKATUA  
NAIZ !



ALDI  
HONETAN ZINEZ  
BUKATUA DA !



AMOROSIK GABE, GENTZIANARIK  
GABE, HAURRIK GABE...  
DESAGERTUKO GIRA !

AITORTU BEHAR DA EZ  
NAUELA INORK LAGUNTZEN...  
AUDE BATEK GOIZEGI  
MOZTU IRATZEAK.

BESTETIK SASITZEN UTZI  
LARREAK...



BESTALDETIK  
ONDDOAK BEZALA  
HAZTEN DIREN  
ETXEAK...

NUN NAHI HEDATZEN DEN  
MUNDRUNA...




EDONON ERAIKITZEN  
DIREN PARETAK...

SOBERA ZAILA DA.

HAU INFERNU  
BAT DA !







AZKEN 4 URTEGAN, BI XARAREN ARTEAN SASITZEN ARI ZEN ZATI HONETAN IREKIDURAK EGITEN HASI GIRA, PINPIRINEN PASABIDEAK SORTZEKO.





HORI BERA, ETA AGIAN LASTER KABALEN ALHATZEA ETA OBRA BATZUETI ESKER...













FEROMONAK AZKARKI HEDATZEN DITU !



HEMENDIK !

HORTIK

EYA

EYA

ZER URRIN TXARRA IZAN BEHAR DEN !



BAT ERE EZ !

HORTXE NAHASTEN GIRA GUV USAIN HORIEK GUREAK DIRA !



DSTEZ GALDUTAKO MYRMICA LARBA BAT DELA, XINAURRITEGIRAT EREMAITEN DUGU.



BEROKIAN, BERE BURUA AHANTZARAZTEN DU ETA GURE LANGILEEK LARBA BAT BEZALA ZAINTZEN DUTE.



HORRA HAURRAK, ISTORICIA HEMEN BURDURATZEN DA.



BAINAN ... EZ DUGU ERRAITEN AHAL BUKATZEN DELA ! BIZIAREN ZIKLOA BERRIZ HASTEN DA.



LARBA HANDIU ETA KRISALIDA BAT BILAKATUKO ETA ..

SEGITZEKOA ...

SOBARIJO : (C) MARKO & CEN, DESSINS : (C) MARKO COULEURS : MAËLA

## Gentzianetako xinaurrijalea Euskal Herrian

Frantziako hego-mendebaldeko gentzianetako xinaurrijale (Phengaris alcon) populazioen parte eder bat Ipar Euskal Herrian atxemaiten da. Euskal Herrian baliatzen dituen biziguneak oso bereziak dira. Beste leku gehienetan bere landare-ostalaria, lintzuretako gentziana (Gentiana pneumonanthe) eta Myrmica generoko bere xinaurri ostalaria garatzen diren hezeguneetan bizi da. Baina Euskal Herriko klima eta lurzoruei esker, bi ostalari horiek hain hezeak ez diren larreetan aurki daitezke. Gentzianetako xinaurrijalea espezie mehatxatua da, batez ere bere biziguneen desagertzearen ondorioz. Euskal Herriko iraztor eta larreen pikatzearen uztearen ondorioz zuhaixka eta zuhaitzak azkarki garatzen dira, pinpirin horren eta bere ostalarien (gentziana eta xinaurriak) kaltetan. Beste larre batzuetan aldiz, maiztasun haundiko alhatze edo pikatzeak kaltegarriak dira gentzianetako xinaurrijalearentzat; lintzuretako gentziana edo Myrmica xinaurriak (batzuetan biak) desagerrarazten baitituzte. Gaur egun, pinpirin hau laborariei esker bizi da, horiek baidituzte iraztorrak larrazkenean ihaurkitarako pikatu eta biltzen; bai eta ere ingurumena babesteaz arduratzen diren elkarteei esker, hala nola Conservatoire d'Espaces Naturels de Nouvelle-Aquitaine. Azken honek zuzenean espezie honen populazioen babesean parte hartzen du.

## Biologia

Gentzianetako xinaurrijalea urtean heldu (imago) belaualdi bakar bat ematen duen eguneko pinpirin bat da. Bere hegaldi aldia aski laburra da, urtearen arabera uztaila eta iraila artean agertzen dena. Helduak ez dira luzaz bizi, 2-3 egun ez beste, 7-9 egun ez gehienez! Ugalketa, beraz, denbora laburrekoa da. Parekatu ondoren emea lintzuretako gentzianaren kimu edo loreen bila abiatzen da. Pinpirinak landarea ikustez edo usainduz atxemaiten du. Arroltzeak kimu edo lorean errunak direlarik, 2 asteren buruan beldarrak arroltzetatik ateratzen dira. Kimu edo lili barnera sartzen dira eta hola kukuturik, landareaz elikatzen dira. Honek hiru aste inguru irauten du. Ondotik, beldarra lurrera erortzen da. Eta hor da gure Myrmica xinaurria agertzen! Beldarrak xinaurri honen feromona kimiko berberak hedatzen ditu. Xinaurri langile batek beldarrarekin topo eginez, usain berezi hori ezaguturik, ihes egindako larba bat dela pentsatu eta xinaurritegirat eramanen du. Larrazkena da eta beldarrak goxo-goxo dira xinaurritegian, xinaurriek elikatuturik eta inguruko xinaurri larbak janz! Beldarra guti izaten da xinaurritegi bakoitzean: bat, batzuetan bi, ez gehiago. Elikatua izateia segurtatzeko, beldarrak xinaurri erreginarekin soinu berberak egiten ditu. Ondorioz erregina bat balitz bezala artatua da. Beldarrek negua xinaurritegietan iragaiten dute. Horietako zoinbaitzu xinaurritegian egoiten dira ondoko urteko primadera arte! Udaberriean beldarra krisalida bilakatzen da: ninfosia da. Erabat eraldatzen da eta, aste batzuen buruan, beldarra pinpirin bilakatzen da. Behin krisalidatik jalgia, heldu gazteak fite xinaurritegitik kanpo atera beharra du, ez baitu gehiago feromonarik hedatzen eta xinaurriek erasotzen ahal baitute. Horrela abiatzen da berriz ere gentzianetako xinaurrijalearen ziklo berri bat.

Komiki hau CEN Nouvelle-Aquitaine lantzen duen «Estrategia...» egitarauaren baitan egina izan da, parteida publiko eta pribatu anitzen laguntzarekin:



Eguneko pinpirinen babesteko Ekintza Plan Nazionalaren eskualdeko deklinabidearekin elkarlanean egina.



BAINAN ZER DA HAU ?  
IZIGARRI HAUNDIA DA !



Egileak : Marko, Maëla Cosson eta Conservatoire d'espaces naturels de Nouvelle-Aquitaine

Koordinazioa : Conservatoire d'espaces naturels de Nouvelle-Aquitaine

Argitalpenaren zuzendaria: Pierre Seliquer

Arrairakurtzea : Conservatoire d'espaces naturels de Nouvelle-Aquitaine-ko langile taldea

Diseinua, erreprodukzio grafikoa eta ilustrazioak: Marko, Maela eta CEN Nouvelle-Aquitaine

Euskarazko itzulpena: Iker Elosegi, Amets Bidart, Peio Cornu

Inprimaketa : Rivet Presse Editions

